

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Lanpostu-zerrendaren aldaketa: Lansarien igoera eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren idazkia

Udalbatzak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Onestea Barrundiako Udalaren langileen ordainsariak ehuneko 0,9 igotzea (2020ko abenduaren 31ko dagozkienei oinarritzat hartuz).

Igoera horrek atzeraeraginezko ondorioa izango du 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bigarrena. Enplegatu publikoei jadanik osatutako eta ez ordaindutako lansarien atzerapenak datorren azaroko hilearen nominetan aplikatuko dira.

Hirugarrena. Eusko Jaurlaritzako Gobernantza eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak Barrundiako Udalaren lanpostuen zerrendari egindako alegazioak onartzea. Zerrenda hori 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen ALHAO (28. zk.).

Laugarrena. Barrundiako Udalaren lanpostuen zerrenda berria onartzea. Hona hemen nola geratzen den finkatuta:

LANPOSTUEN ZERRENDA

LAN POSTUA	FUNTZIONARIOA LANEKOA	NORMALIZATUA BEREZITUA	HORNIK. (L) LEHIAKETA	GRADUA	LANPOSTU OSAGARRIEN MAILA	BERARIAZKO OSAGARRIA	ESKALA	TITULAZIOA	HIZKUNTZA ESKAKIZ	DERRIGORT DATA	DEDIKAZI. OSOA ZATIKATUA	EGOERA BETETA HUTSIK	DEDIKAZIO BEREZIA
Idazkari-Kontuhartz.	F	B	L	A1/A2	26	29.408,80	Estatuko gaikuntza	Gradua	4	19.10.2011	Osoa	B	25%
A. O. T.	F	N	L	A1	28	19.414,90	Orokorra	Gradua, Lizentz	4	05.11.2020	Osoa	H	
Admria.	F	N	L	C1	15	21.857,43	Orokorra	Batxilergoa, Teknikaria	3	05.11.2020	Osoa	H	
Admria.	F	N	L	C1	15	21.857,43	Orokorra	Batxilergoa, Teknikaria	3	05.11.2020	Osoa	H	
Admri. Laguntz	F	N	L	C2	15	24.335,81	Orokorra	Derrigzko Bigarren Hezkuntza	2		Osoa	B	
Mantentze-lanetako peoia	F	N	L	C2	13	14.839,10	Berezia	Derrigzko Bigarren Hezkuntza	2	05.11.2020	Osoa.	H	20%
Garbitzailea	F	N	L	AA. PP.	10	13.724,13	Orokorra	Eskola ziurtagiria	1	27.06.2018	Osoa	H	

Idazkari-Kontuhartz.: Idazkari-Kontuhartzzailea.
 A. O. T.: Administrazio Orokorreko Teknikaria.
 Admria: Administrazioa.
 Admri. Laguntz: Administrazio Laguntzailea.

Behaketak:

Peoia: Prestutasuna / B gidatzeko baimena.

Garbitzailea: B gidatzeko baimena.

Ozaetan, 2021eko azaroaren 10ean

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA